







## Energia kontsumoa EAEn



### Energiaren kontsumoa EAEn

#### Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %1,8 egin zuen gora martxoan, 2017. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %0,7 igo zen, hirugarren sektorean edo zerbitzuetan %1,3 eta etxekoan, berriz, %6 jaitsi zen.

2018ko martxora arte metatutako kontsumoak %1,1 egin zuen gora, 2017. urteko epe berean izandakoarekin alderatuta; etxeko sektorean %1,7 jaitsi zen, zerbitzu arloan %0,5 igo zen eta industrian, ordea, %0,2 egin zuen behera. Lehen hiru hilabete honetan, industrian gora egin duten sektoreak, besteak beste, hauexek izan dira: zementua (+%9,5), kautxuzko eratorriak (+%8,6), beiragintza (+%8,8) eta automobilen langintza (+%6,1); behera egin dutenak, aldiz, ontzizigintza (-%51,4), papera eta kartoia (-%5,3) eta siderurgia eta galdagintza (-%2,5).

#### Gas naturala







Martxoan, gas naturalaren guztizko kontsumoak %1,5 egin zuen gora, 2017ko martxoan izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %68 jaitsi zen eta gainerako sektoreena, berriz, %7,3 igo zen. 2018ko lehen hiru hilabetean metatutako kontsumoak %0,8 egin zuen gora, aurreko epealdiaren aldean, (-%48 CCTT-n eta +%6,5 gainerako sektoretan).

#### Erregaiak garraioan

Otsailean, garraioan erregaien kontsumoak %10,8 egin zuen gora, 2017. urteko hil berean izandakoarekin alderatuta. Lehen 2 hilabetean metatutako kontsumoa %10,3 igo zen, 2017koarekin erkatuta. Hala, gasolinen kontsumoak %5,8 egin zuen gora eta A gasolioarenak %10,7.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

## Kanpoko Egoera








### EAEtik kanpoko egoera

**Petrolioaren kontsumoa munduan**  
 Martxoan, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 99,7 milioi kupel izan zen (2017ko martxoan izandakoaren aldean, %1,3 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %0,2 egin zuen gora kontsumoak, 14,2 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %3,7 igo zen, eta 13,9 Mbpd kontsumituzera heldu zen eta AEBetan %0,5 igo zen, eta 20,1 Mbpd kopuruan kokatu zen.

**Energiaren kontsumoa Espainian**  
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %10,2 egin zuen gora martxoan, 2017ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. 2018. urteko lehen hiruhilekoan metatutako kontsumoak %5,3 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, gora egin zuen martxoan, %0,5, 2017ko martxoan izandakoaren aldean. 2018. urtean metatutako kontsumoa %1,6 igo zen, 2017an izandakoarekin alderatuta. Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %3,5 egin zuen gora otsailan, 2017ko hil berean izandakoarekin konparatuta; gasolinaren kontsumoa %3,7 igo zen eta gasolioena %3,4. 2018ko lehen 2 hilabeteetan metatutako kontsumoak %4,8 egin zuen gora, aurreko epealdi beraren aldean, (%4,6 igo zen gasolinena eta %4,8 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %10,5 egin zuen gora otsailan, eta 2018ko lehen 2 hilabeteetan izandako kontsumo metatua %5,6 igo zen, aurreko epealdi berarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAREN datuetan oinarrituta.

## Energiaren prezioa



### Energiaren prezioa

#### Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 66,4\$ (54€) izan zen martxoan. Urtebetean prezioak %27,9 egin zuen gora (%10,7 eurotan).

#### Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 40,2€/MWh izan zen martxoan; duela urtebete zegoenaren aldean, %7 egin zuen behera.

#### Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 19 €/MWh izan zen otsailean, eta %4,5 igo zen, 2017ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Martxoan, EGIX-en batez besteko prezioa 18,2€/MWh izan zen (2017ko martxoan izandakoarekin alderatuta, %7 jaitsi zen). Spot merkatuetan, martxoan, Henry Hub-en prezioa 9,2 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 28,2 €/MWh, (2017ko hil horretan izandakoaren aldean, -%6,6 eta +%14,7 egin zuten behera eta gora, hurrenez hurren).

#### Erregaien prezioa

EAEn, martxoan, gasolioaren prezioa 1,12 €/l izan zen (urtebetean %2,6 igo da), eta gasolinarena 1,21 €/l (urtebetean %1 egin du gora).

#### CO<sub>2</sub>-aren prezioa

CO<sub>2</sub>-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 11,7 €/t izan zen martxoan, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %131 igo da.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, Powernext, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.